

25 GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



SEKZIOAK/ INTERSEKZIOAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAREN
BILDUMAK 25 URTE

Babeslea:

bbk 

Guggenheim Bilbao Museoak 25 urte betetzen ditu, artearen eta kulturaren arloan nazioarteko erreferentziarako erakunde gisa finkatu eta zazpi mendeko historia bikaina gordetzen duen hiri baten ikono bihurtuta. BBK estuki lotuta dago Museoak kokaleku duen lurralde historikoarekin, baita konprometituta ere haren garapenean eta gizarte-kohesioan; horrenbestez, 25.

urteurren honetara batu nahi izan du urtemugako erakusketa nagusiaren babesle gisa: *Sekzioak/Intersekzioak: Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumak 25 urte*. Erakustaldiak azpimarratu egiten ditu urte horietan guztietan zehar bildutako funtsak, eta liburu honek horietako zenbaiten aukeraketa interesgarria aurkezten du.

Museoarekin balioak partekatzen ditugu, besteak beste gizartearekin, kulturarekin eta herritarren ongizatearekin hartua dugun konpromisoa, eta harengandik oso hurbil sentitzen gara azken hamarkada hauetan Bizkaia zeharo berritzen bete dugun zeregin honetan, esparru soziokulturean eta, bereziki, ezagutzaren sorkuntzan eta hedapenean, talentuaren sustapenean, eta pertsona guztien integrazioan eta aintzatespenean, talde-lanaren ahalegina eta balioa ahaztu gabe.

25 urte hauetan zehar Museoak nabarmen aberastu du Bilbo, estetikaren eta ondarearen arloetan egin duen ekarpenari esker aberastu ere, eta dinamismo kultural eta artistiko izugarriarekin bultzatu du hiria. Halaber, artearen irisgarritasuna eta dibulgazioa erraztu ditu, mundu garaikidearen gaineko begirada berriei bide emanez, horrek zenbateraino aberasten gaituen kontuan hartuta. Horri esker, gainera, pertsona askok aukera izan dute era guztietako obra, proposamen eta ikuspegi artistikotara hurbiltzeko, eta haien esanahietan sakontzeko. Erabat gatoz bat Museoak bereizgarri duen ikuspegi inklusiboarekin, eta geu ere saiatzen gara hura sustatzen, publiko gero eta zabalagoek estetikaz goza dezaten eta eszena kulturean eta eztabaida premiazkoenetan parte har dezaten arte moderno eta garaikideko obrek sarritan gure garaiko funtsezko gaien inguruan sorrarazten dituzten hausnarketatik abiatuta.

Bertokoaren eta nazioartekoaren arteko lotura, artearen eta giza jardueraren alorren arteko sinergiak, are eta kulturaren arloko ekoizpenaren eta ekonomiaren beste esparru batzuen arteko elkarrekintza hartu-eman garrantzitsuak dira baita ere, Museoaren existentziak berak eta hasiera-hasieratik industria-berroneratze prozesu zabalago batean integratu izanak sustatuak. Bilbok 1990eko hamarkadaren amaieran hasitako eraldaketak, laster nazioarteko ekonomia- eta hirigintza-eredu bihurtu zenak, aurrera dihardu gaur egun bere bilakaera geldiezinan, kulturak eta arteak zeregin garrantzitsuak izaten jarraituko duten etorkizunerantz bideratuta. BBKk ere aurrerabide hori bultzatzen jarraituko du, arte garaikidea pertsona guztien artean hobeto ezagutarazten, ulertarazten eta hedatzen lagunduz, Bizkaiko garapen soziokultural etengabea indartuz beti.

Xabier Sagredo

BBKren Presidentea

Sekzioak/Intersekzioak
Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumak 25 urte

- Datak: 2022ko urriak 19 – 2023ko urtarrilak 22
 - Komisarioak: Lekha Hileman Waitoller, Manuel Cirauqui, Geaninne Gutiérrez-Guimarães, Lucía Agirre eta Maite Borjabad, Guggenheim Bilbao Museoa
 - Babeslea: BBK
-
- Triptiko handi baten moduan taxutua, *Sekzioak/Intersekzioak* erakusketak gaika antolatutako hiru hurbilketa eskaintzen ditu, elkarren arteko loturak nabarmendu eta ikuspegi berri bat aurkezteko, Museoaren Bilduma bere 25. urteurrenaren ospakizunean bestelako argitan behatzeko aukera eskainiz.
 - *Historiaren mugarriak* hurbilketak, hirugarren solairuan, Guggenheim Bilbao Museoaren bi giltzarri ditu protagonista: Frank Gehryren arkitektura, bere jatorrizko argitasuna agerian utzita, eta Bildumako pieza gailenen sorta bat, XX. mendearen bigarren erdiko artearen historian izandako hainbat mugarri nabarmentzeko.
 - *Narratibagintza* hurbilketak, bigarren solairuan atalka aurkeztuak, hogeit hamar artistaren hainbat obra biltzen ditu, narrazioaren paradigmen ikuspegi ireki bat eskaintzen dutenak kronologia, mugimendu eta estilo anitzen bidez gaika taldekatuta.
 - *Bizitza materiala* hurbilketak, lehen solairuan, naturako funtsezko elementuen arrastoari jarraitzen dio, eta haien transformazio, konbinazio eta indarrei erreparatzen die egungo testuinguru konplexuan.

2022an Guggenheim Bilbao Museoak bere 25. urteurrena betetzen du eta, ospatzeko, Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren aurkezpen handi bat taxutu du bertako areto guztiak hartzen dituen BBKren babesari esker. Triptiko handi baten moduan aurkeztua, *Sekzioak/Intersekzioak. Guggenheim Bilbao Bildumak 25 urte* erakusketak gaika antolatutako hiru hurbilketa biltzen ditu, elkarren arteko loturak agerian utzita, eta bere ibilbidean zehar Museoaren barrualdea eta kanpoaldea definitu dituzten artelanak bestelako argitan behatzeko aukera emanez. Hala, Museoak sortu zenetik gaur arte osatzen aritu den Bildumaren ikuspegi panoramiko bat eskainiko du, bere historian lehen aldiz solairu guztietako areto guztiak —horietako asko aldi baterako erakusketetarako erabili ohi direnak— osorik hartuta. Erakusketa kolektibo handi honen gaikako ardatz nagusiak hauek dira: hirugarren solairuan *Historiaren mugarriak*, bigarrean *Narratibagintza* eta lehen solairuan *Bizitza materiala*.

Hurbilketa bakoitza autonomoa da, eta aldi berean dialogo bat ezartzen du gainerakoekin, geografia, tenporalitate eta interes-eremu desberdinen arteko hainbat sekzio eta intersekzio iradokiz Bildumari buruzko ikuspegi berri bat eskaintzeko. Erakusketa-proiektu honen aparteko alderdien artean nabarmentzekoa da oso gutxitan erakutsi diren piezak eta eskuraketa berriak jarriko direla ikusgai, baita berriki zaharberitutako formatu handiko obrak aretoetan berriro ikusteko aukera izango dela ere. Horri guztiari esker, hainbat pieza gailen argi berri baten pean behatu ahal izango dituzte bisitariak, besteren artean: *Itsas paisaia* (Seestück, 1998) Gerhard Richterrena; *Horma-irudia 831. zk. (Forma geometrikoak)* [Wall Drawing #831 (Geometric forms), 1997], Sol LeWittena; *Tximista oreina argituz (Blitzschlag mit Lichtschein auf Hirsch, 1958-85)*, Joseph Beuysena; eta *Titulurik gabea (Untitled, 1988)*, Jannis Kounellisena, Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumara duela gutxi gehitutako obra berrien ondoan.

ERAKUSKETAKO IBILBIDEA

Historiaren mugarrak - Hirugarren solairua

Erakusketa honetan Guggenheim Bilbao Museoaren bi giltzarri dira nagusi: Frank Gehryren arkitektura eta Bigarren Mundu Gerraren osteko artearen historian izandako hainbat mugari nabarmentzen dituzten artelanen aukeraketa bat. Artea eta arkitektura goraiatzeko nahi argi batekin, Museoaren goiko solairuan argiz blaitutako espazio garbiak nabarmendu nahi izan dira Bildumako piezarik bikainenetako batzuk baliatuta. Izan ere, pieza horien kokapen berriak eraikinaren jatorrizko egoera agerian utziko du, sabai-leihoak ireki eta denboran zehar gehitutako barruko partizioak ezabatu ondoren.

Historiaren mugarrak Bilduman ondo ordezkaturata dauden artista indibidualen obra-multzoak eta mugimendu artistikoak ditu hizpide, nork bere arloan ekarpen erabakigarriak egin zituzten abangoardiako figuren bitartez. Horrela, areto bakoitzak artista bakar baten edo antzeko kezka aztertzen dituzten hainbat autoreren lana ikusteko aukera eskaintzen du. Cristina Iglesiasen eta Sol LeWitten obrak instalazio espezifikoetarako diseinatutako espazioetan erakutsiko dira, eta beste areto batzuetan beste instalazio batzuk jarriko dira ikusgai, gaika antolatuta. Lehenengoak, New Yorkeko gerraosteko abstrakzioari eskainiak, adierazpide abstraktuan oinarritutako hiztegi erradikala garatu zuten ahots adierazgarrienetako batzuen obrak elkartzen ditu: Willem de Kooning, Mark Rothko, Lee Krasner, Clifford Still, Robert Motherwell eta Ellsworth Kellyrenak.

Beste aretoetako batek aukera ematen digu adierazpide abstraktuak izan duen bilakaera ikusteko, hain zuzen ere 1960-1980ko hamarkada bitartean hizkuntza berriak garatu zirenean, material berriekin espermentatzeagatik, serigrafiaz baliatzen hasteagatik eta artelanetan testua erabiltzeagatik nabarmendu izan diren artisten bitartez. Hala, artista horien artean ditugu John Chamberlain, Cy Twombly, Robert Rauschenberg, Sigmar Polke eta Jean-Michel Basquiat.

Areto batek Espainian abstrakzioak eta abstrakzioaren bilakaerak izan duten ibilbidea erakusten digu Eduardo Chillida, Jorge Oteiza, Antoni Tàpies, Pablo Palazuelo, Cristina Iglesias eta Juan Uslé artisten obrekin.

Belaunaldi desberdinetako artisten elkarraldi suspergarri bat, hizkuntza desberdinak landuta espazioaren eta materialen inguruan partekatu zituzten kezkek aditzera ematen dituenak.

Komunikabideak eta herri-kultura inspirazio-iturri izan dira zenbait artistarentzat, esaterako, James Rosenquist, Andy Warhol, Gilbert & George eta Jeff Koonsentzat, eta haien interes partekatu hori beste aretoetako batean erakutsi nahi izan da haien obrak elkarrekin batera ikusgai jarrita. Jatorri desberdineko artistak dira, eta hiztegi artistiko propio bat jorratzen dute beren obretan. Hala ere, bat datoz bakoitzari dagokion garaiko gertaera garrantzitsuak beren lanetan jasotzeko nahian eta herri-kultura lehengai gisa baliatzean.

Aurkezpenean, Bildumari gehitutako azkeneko eskuraketa bat ere hartu da barnean: *Itsaso gorakorra* (*Rising sea*). El Anatsuien metalezko eskultura hedakor horretan artista afrikarrak estetika garaikide globala baliatuz garatu duen berdinek ez duen ikuspegia erakusten du. Artistak teknika berritzaile bat garatzen du, zeinetan likore-botilen tapoiak erabiltzen baititu metalezko eskultura handiak sortzeko. Lantalde baten laguntzarekin, material hori lautu, bihurtu eta zanpatu egiten du eta, ondoren, kobrezko hariarekin, aluminiozko elementuak josi eta panelak sortzen ditu haiekin, eskultura monumentalak eratzeko elkartzen dituenak. *Itsaso gorakorra* artistak sortutako azkeneko piezetakoa da, baita handienetakoa ere. Gainera, orain arte sortu dituen metalezko zazpi eskultura monokromo bakarretako bat da. *Historiaren mugarrak* atalean kulturaren eta ingurunearen arteko bereizketa gainditzen duen eskultura garaikidearen adibide gisa balio du.

Narratibagintza – Bigarren solairua

Obra narratibok, askotan, gertakari erlijioso, historiko, abstraktu, adierazgarri, elezaharretakoak nahiz mitologikoak erakusten dituzte, esanahi-geruza desberdinak aletzen dituztenak, esperientzia indibidualak baliatuz historia partekatuak, errealak zein fikziozkoak, transmititzeko. Batzuetan, kontakizuna gai eta pertsonaien inguruan egituratzen da; beste batzuetan, sakon errotutako lotura kulturalak dituzten egunerokotasuneko objektuetan eta materialetan oinarritzen da, eta zenbaitetan, fikzioetan du jatorria, ikuslearen irudimena pizten duten horietan, berau osatu nahiz zalantzan jartzeko.

Gaur egungo artistengan forma narratibokiko antzematen den konpromisoa eta horiek berrasmatzeko ahalegina “narratiba handiei” aurka egiteko borondateak sortua da. Termino hori Jean François Lyotard filosofo frantsesak erabili zuen lehen aldiz 1979an, diskurtsoak eta, horiekin batera, esperientziak eta ezagutzak modu totalitario batean eta egia absolutu gisa nola aurkezten diren azaltzeko. Haren ikuspegi kritiko erresiliente eta nolabait askatzailearekin, Lyotardek mikronarratibak edo “petit récits” direlakoak ardaztat hartzea iradoki zuen, non kultur aniztasun eta ikuspegi pertsonal zatikatua den errepresentazioaren abiapuntua. Gure oraingo gizartean, narrazioaren ahalmen bisuala eta poetikoa zabaldu eta eraldatzeko hartzen dute ikuspegi berri hori artistek, eta horrela ehuntzen dituzte beren istorioak eta hedatzen dute narratiba tradizionalaren forma zedarritua.

Premisa horren pean, bigarren solairuan 1957 eta 2019 urte bitartean hogeitaz artistak hainbat baliabidetan — pintura, eskultura, argazkia, papera euskarri dutenak eta instalazioa— egindako lanen hautaketa bat biltzen da, XX. mendearen bigarren erdiko hainbat mugimendutatik abiatuta narrazioaren paradigmen ikuspegi ireki bat

eskaintzeko. Hala, *Narratibagintzan* gaika antolatutako kronologia, mugimendu eta estiloak hartzen dituzten obrek hautaketa koherentea osatzen dute, atalka ordenatua: *Mozorro-nortasunak*, *Espiritualetik harat*, *Memorian atxikirik*, *Adierazpen-moldeak*, *Errealitateen egoera anbiguoak* eta *Eraldaketa-egoerak*.

Galerietako batzuk banako artistei eskainiak dira haien instalazio espezifikoak hedadura espazial handikoak baitira eta eragin sakona baitute ikuslearen esperientzian; esaterako Christian Boltanskirenak eta Francesco Clementerenak. Areto horietako batzuetan Bildumako sail bereziak nabarmentzen dira, besteak beste, George Baselitzena eta Alex Katzena.

Beste areto batzuetan, berriz, materialtasunarekin, eta mitologiaren, sinbolismoaren eta historiaren nozioekin esperimentatzen duten obrak erakusten dira, esaterako Joseph Beuysenak eta Anselm Kieferrenak, edo adierazpen performatiboak eta gorputzarenak nabarmentzen dituztenak, gaiaren, teknikaren eta materialaren bitartez; besteak beste, Yves Kleinen edo Yoko Onoren obrekin. Bestetan, gai zabalagoak jorratzen dituzten obra-multzoak aurkezten zaizkigu, narratibaren aukerak hedatuz, besteak beste, hauenak: Miquel Barceló, Jenny Holzer, Abigail Lazkoz, Juan Luis Moraza, Juan Muñoz, Ernesto Neto, Javier Pérez, Antonio Saura, eta Julian Schnabel.

***Bizitza materiala* – Lehen solairua, 105 aretoa**

Azken hamarkadetan, informazioaren teknologien goraldiak hainbat belaunaldi eta jatorritako artistak gure munduaren materialtasuna berraztertzeraz eraman ditu, haien praktikaren bidez munduaren errealitate ukigarria eta menderaezina azpimarratuz. Arte globalaren azken berrogeita hamar urteetako obren aukeraketa baten bidez, erakusketak paisaia balitz bezala aurkezten du joera honen indarra, aldi berean berrasmatze agortezin bat dela aditzera emanda. Artearen Historiako mugimendu jakin batzuen oihartzuna, besteak beste, Arte Povera edo Arte Kontzeptualarena, funtsezkoa da gaur egun plastikaren arloan gertatzen ari diren garapenetan, eta indar berezia du eskulturaren eremuan, beste baliabide eta teknika batzuk kanpo geratzen ez badira ere.

Egungo panoramaren aberastasuna eta dramatismoa, zalantzarik gabe, mundu natural eta eraikiaren amalgamatik, bere gainkarga ekologikotik eta horrek gure bizitzetan duen gero eta eragin handiagotik sortuak dira, baina baita teknologikoen goraldiak bultzatu duen materialen zientzia berritik ere. Testuinguru konplexu horretan, *Bizitza materialak* oinarritzko ikuspegi bat proposatzen du, terminoaren zentzu hertsian. Inbentario bukatugabe bat balitz bezala, erakusketak naturako oinarritzko elementuen arrastoari jarraitzen dio, eta haien transformazioei, konbinazioei eta indarrei erreparatzen die. Oinarritzko elementuen kopuruaren inguruko desadostasun kulturalak —lau ziren antzinako Grezian, baita alkimia barrokoan ere; zazpi Txinako kosmologia tradizionalan; bost Indiako filosofian— lehenik eta behin interpretazio-askatasuna eskatzen du, eta horrek leku handi bat uzten die espekulazioari eta asmakuntzari.

Modu ireki batean, horrela birformulatzen da behin eta berriro munduaren funtsezko osagaiei eta haien arteko konbinazioei buruzko galdera. Areto hau, beraz, indarren eta formen konfigurazio posible bat bezala dago pentsatua, baita memoriaz kargatuta dauden baina irmoki presente dauden materialena ere. Bertan artistan

hauen obrak elkartzen dira: Doris Salcedo, Gerhard Richter, Mona Hatoum, Richard Long, Asier Mendizabal, Susana Solano, Itziar Okariz eta Rodney Grahamenak, besteak beste.

Yayoi Kusama – Lehen solairua, 103 aretoa

Guggenheim Bilbao Museoari egindako epe luzerako maileguari esker, erakusketan Yayoi Kusama (Matsumoto, Nagano, 1929) artista eta idazle japoniarraren obra bat dago ikusgai. Sorkuntza garaikidean figura aitzindaria eta nabarmena den aldetik, Kusamak gizartea aldatzeko bitartekotzat hartzen du artea eta, horretarako, performanceaz, pinturaz, marrazkiaz, eskulturaz, literaturaz, eta bere instalazio murgiltzaile ezagunez —haren *Infinituaren isla-gelak* (*Infinity mirror rooms*) delakoak— baliatzen da.

Museoan aurkeztzen dugun *Infinituaren isla-gela – Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz harainditik igorria* (*Infinity Mirrored Room – A Wish for Human Happiness Calling from Beyond the Universe*, 2020) instalazioa artistaren azkenetako obra bat da, eta Kusamak esperientzia murgiltzaile batean barneratzen gaitu bertan. Espazio honek artistaren haluzinazioak, “auto-obliterazioaren” premia proiektatzen ditu, eta bere unibertso obsesiboaren partaide egiten du publikoa, hura ere desagertzeraz gonbidatuz koloretako argien bizitasun handiko bere jokoan; argi horiek mugarik gabe ugaltzen dira azkenik ez duen aretoko ispiludun hormetan.

DIDAKTIKA

Erakusketaren osagarri den Didaktika proiektua online eta presentzialki garatzen da *Hormek hitz egingo balute...* izenburupean. *Hormek hitz egingo balute...* kontakizun ugari eskaintzen dizkigute Guggenheim Bilbao Museoaren eta bere Bildumaren 25 urteez haiekin ikasi, pentsatu eta gozatzeko.

Didaktika honek Museoko obren eta bere aparteko arkitekturaren artean sortzen den elkarrizketa berezia nabarmentzen du irudien eta bideoen bitartez, obren hautaketa bati buruzko testuak ondoan dituztela. Hautatutako artelan horien autoreak hauek dira: El Anatsui, Joseph Beuys, Christian Boltanski, Francesco Clemente, Jenny Holzer, Jeff Koons, Abigail Lazkoz eta Sol LeWitt, besteren artean.

Jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia *Sekzioak/Intersekzioak* (urriak 18)

Guggenheim Bilbao Museoaren zuzendari Juan Ignacio Vidartek Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren 25 urteak ospatzen dituen erakusketa aurkeztuko du, erakusketaren arte-arduradunak lagun dituela: Lekha Hileman Waitoller, Manuel Cirauqui, Geaninne Gutiérrez-Guimarães, Lucía Agirre eta Maite Borjabad.

Hausnarketa partekatua*

Guggenheim Bilbao Museoko profesionalak erakusketa osatzen duen triptiko handi honen —*Bizitza materiala, Historiaren mugarriak* eta *Narratibagintza*— edukiei buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte bisita paregabe hauetan.

Arte-arduradunen ikuspegia

Museoko arte-arduradunek ibilbide gidatu bat egingo dute erakusketa osatzen duten ataletatik:

- *Bizitza materiala* – Lehen solairua, 105 aretoa, Manuel Cirauqui (urriak 5)
- *Historiaren mugarrak* – Hirugarren solairua, Lekha Hileman Waitoller (urriak 26)
- *Narratibagintza*– Bigarren solairua, Maite Borjabad (azaroak 9)
- Yayoi Kusamaren instalazioa – Lehen solairua, 103 aretoa, Lucia Agirre (azaroak 16)

Bestetik, Museoaren Bildumari gehitu zaizkion eskuraketa berrien aurkezpena dela eta, arte-arduradunen ikuspegi berezi bat eskainiko du Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren arte-arduraduna den Lekha Hileman Waitollerrek (irailak 28)

Funtsezko kontzeptuak

Luz Maguregui, Museoko Hezkuntza arloko Koordinatzailea, bertaratuekin arituko da solasean

Sekzioak/Intersekzioak erakusketaren gako didaktikoei buruz:

- *Bizitza materiala* – Lehen solairua, 105 aretoa (irailak 21)
- *Historiaren mugarrak* – Hirugarren solairua (azaroak 2)
- *Narratibagintza*– Bigarren solairua (azaroak 23)

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

Yoko Onoren *Nahien zuhaitza* aktibatzea (urriak 23 eta abenduak 31)

Yoko Ono artistaren *Nahien zuhaitza* berriro aktibatuko da pandemiaren ondoren, Museoaren 25. urteurrena ospatzeko. Nahiak partekatzeko aukera paregabea, etorkizunari ilusioz eta energia onez begiratzeko. Obra hau Museoaren Bildumakoa da, eta kokapen berri batean aurkezten da, esperientzia eta elkarrizketa desberdinak sorrarazteko asmoz. Zuhaitzetik esekitako nahiak urtea amaitu artean egongo dira ikusgai.

Intersekzioak dantzarekin sortze-prozesua (azaroak 5)

Sekai konpainiako dantzari gazteek dantza urbanoarekiko duten interesaz eta beren koreografien indarrak jardungo dute Museoan emango duten azaroaren 6ko ikuskizunaren aurrerapen moduko solasaldi honetan.

Break In Art. Intersekzioak dantzarekin (azaroak 6)

Museoak urrirako programatutako New Yorkeko koreografien ildotik, tokiko koreografien erakustaldi bat egingo da. Hala, dantza urbanoaren emanaldiak egingo dira Museoaren barrualdean, bertako artelanekin eta espazioekin elkarrizketan. Eraikinaren hiru solairuetatik egingo diren *pop-up* emanaldi hauetan publikoarekin ospatuko da Bildumaren aniztasuna eta aberastasuna. Aretoetako interbentzioen ondoren, Atrioan emango zaio azkena ikuskizunari. Sekai konpainiako dantzarien parte-hartzearekin.

Kairós harpa eta poesia errezitaldia (abenduak 18)

Francesca Romana Di Nicola harpa-joleak eta Juan Kruz Igerabide poetak omenaldi bat egiten diote denboraren ideari Richard Serraren instalazioan. *Kairós*, *Denbora / Itzulera* emanaldiak, harparen bibrazioen eta bertsoen indarraren bitartez, sentimenduak askatzera eta gizakiaren eboluzioa eta transformazioa

deskubritu eta birdeskubritzera gonbidatzen du bisitaria, obren eta arkitekturaren beraren monumentaltasunarekin elkarrizketan.

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketina eta Komunikazioa saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Sekzioak/Intersekzioak. Guggenheim Bilbao Bildumak 25 urte
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsa-irudien online zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala.

Dagoeneko erabiltzailea bazara, adierazi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta sartu zuzenean irudiak deskargatzeko orrian.

- *Sekzioak/Intersekzioak. Guggenheim Bilbao Bildumak 25 urte* erakusketaren publizitatea egiteko soilik erabiliko dira irudi horiek. Erakusketa 2022ko urriaren 19tik 2023eko urtarrilaren 22arte egongo da zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pizeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.
- Irudiak azalean erabiliz gero, baliteke zerbait ordaindu behar izatea, eta obraren copyrightaren jabe eta titularrak baimena eman beharko du.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-eremuarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektronikoz bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

103 aretoa

Yayoi Kusama

*Infinituaren isla-gela – Gizakientzako zorion-guraria,
unibertsoaz harainditi igorria (Infinity Mirrored Room – A Wish
for Human Happiness Calling from Beyond the Universe), 2020*

Baliabide anitzak

Edizioa: 1/5

293,7 × 417 × 417 cm

Eskaintza: Ota Fine Arts

©YAYOI KUSAMA, Bilbao, 2022



105 aretoa

Mona Hatoum

Gure etxea (Home), 1999

Zura, altzairu galvanizatua, altzairu herdoilgaitza, kable elektrikoak, krokodilo-matxarda, bonbillak, ordenagailu bidezko erregulagailua, amplifikadorea eta bozgorailuak

76,2 x 198,1 x 73,7 cm (mahaia), guztizko neurri aldakorrak

Edizioa 1/3 + 1 AP

Guggenheim Bilbao Museoa

© Mona Hatoum, Bilbao, 2022



Jannis Kounellis

Titulurik gabea, 1988

Altzairuzko 12 panel, ikatza eta arpillerazko zakuak

Guztizko neurri aldakorrak

Guggenheim Bilbao Museoa

© Jannis Kounellis, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Richard Long

Bilboko zirkulua (Bilbao Circle), 2000

Delabole-ko arbela

Diametroa: 1.300 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Richard Long, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Asier Mendizabal

Nom de guerre, 2007

Hormigoia, metala eta etanol-errekuntza

Suontzia: 56 x 80 x 38 cm.

Guztizko neurri aldakorrak

Guggenheim Bilbao Museoa

© Asier Mendizabal, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Gerhard Richter

Itsas paisaia (Seestück), 1998

Olio-pintura mihise gainean

290 x 290 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Gerhard Richter, Bilbao, 2022



Doris Salcedo

Titulurik gabea, 2008

Zura, metala eta zementua

78 x 247 x 121 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Doris Salcedo, Bilbao, 2022



Susana Solano

Jaosokor, 1997

Burdina, PVCa, soka eta argazkia

Gutzizko neurri aldakorrak

Guggenheim Bilbao Museoa

© Susana Solano, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Bigarren solairua

Txomin Badiola

Familiarteko konplota. Bigarren bertsioa, 1993-95

Zura, kristala, soka eta argazkiak

Gutzizko neurri aldakorrak

Guggenheim Bilbao Museoa

© Txomin Badiola, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Miquel Barceló

Uholdea (Le Déluge), 1990

Baliabide anitzak mihise gainean

230 x 287,7 x 4 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Miquel Barceló, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Georg Baselitz

Eguzkia eta ilargia hartzen Jeff eta Damienenean, Lenin andrea eta urretxindorra sailetik (Mrs Lenin and the Nightingale: Sonnung und Mondung im Hause von Jeff und Damien), 2008

Olio-pintura mihise gainean

Hamasei mihise, 300 x 250 cm bakoitza

Guggenheim Bilbao Museoa

© George Baselitz, Bilbao, 2022



Joseph Beuys

Tximista oreina argituz (Blitzschlag mit Lichtschein auf Hirsch), 1958–85

Brontzea, burdina eta aluminioa

39 elementu., Guztizko neurri aldakorrak

Edizioa: 0/4

Guggenheim Bilbao Museoa

© Joseph Beuys, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Francesco Clemente

Amaren gela (La stanza della madre), 1995–97

Olio-pintura eta tenpera liho gainean

Hamazazpi paneleko saila

Guggenheim Bilbao Museoa

© Francesco Clemente, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Anselm Kiefer

Bakarrik haizearekin, denborarekin eta soinuarekin

(Nur mit Wind, mit Zeit und mit Klang), 1997

Bakarrik haizearekin, denborarekin eta soinuarekin

470 x 940 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Anselm Kiefer, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Yves Klein


Antropometria urdin handia (ANT 105) [La grande Anthropométrie bleue (ANT 105)], ca. 1960

Pigmentua eta erretxina sintetikoa paper gainean, mihise gainean muntatuta

287,8 x 430 x 4 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Yves Klein, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Ernesto Neto

Burbuila zuria (White Bubble), 2013-17

Poliamida, tutuak eta kristalezko aleak

400 x 710,66 x 540, 66 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

Artistaren dohaintza

© Ernesto Neto, Bilbao, 2022



Yoko Ono

Hichiko Happo, 2014

Sumi tinta bederatzi mihiseren gainean
200 x 100 cm bakoitza, 200 x 900 cm guztira
Guggenheim Bilbao Museoa
Artistaren dohaintza
© Yoko Ono, Bilbao, 2022



Hirugarren solairua

El Anatsui

Itsaso gorakorra (Rising Sea), 2019

Aluminioa eta kobrezko haria
800 x 1400 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© El Anatsui, Bilbao, 2022



Jean-Michel Basquiat

Napoliko gizona (Man from Naples), 1982

Akrilikoa eta collagea zur gainean
124 x 246,7 x 3,5 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Estate of Jean Michel Basquiat, VEGAP, Bilbao, 2022



Eduardo Chillida

Sakona airea da (Lo profundo es el aire), 1996

Alabastroa
94 x 122 x 124 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Eduardo Chillida, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Cristina Iglesias

Titulurik gabea (Sareta II) [Sin título (Celosía II)], 1997

Zura, erretxina eta brontze-hautsa
260 x 350 x 300 cm
Guggenheim Bilbao Museoa
© Cristina Iglesias, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Ellsworth Kelly

Kurba horia I (Yellow Curve I), 1972

Olio-pintura mihise gainean

170,2 x 341 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Ellsworth Kelly Foundation



Jeff Koons

Idi-bihotzak (Tulips), 1995–2004

Kromo asko duen altzairu herdoilgaitza

koloredun laka zeharrargiarekin

203 x 460 x 520 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

©Jeff Koons, Bilbao, 2022



Sol LeWitt

Horma-irudia 831. zk. (Forma geometrikoak) [Wall Drawing #831 (Geometric Forms)], 1997

Akrilikoa horma gainean

Kokapen zehatzeko neurriak

Guggenheim Bilbao Museoa

© Sol LeWitt, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Robert Motherwell

Feniziako estudio gorria (Phoenician Red Studio), 1977

Akrilikoa eta ikatz-ziria mihise gainean

218,44 x 487,68 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Robert Motherwell, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



James Rosenquist

Flamenko kapsula (Flamingo Capsule), 1970

Olio-pintura mihise gainean eta Mylar aluminioztatua

290 x 701 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© James Rosenquist, Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao, 2022



Mark Rothko

Titulurik gabea (Untitled) 1952–53

Olio-pintura mihise gainean

299,5 x 442,5 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

© Kate Rothko Prizel y Christopher Rothko, Bilbao, 2022

